

PUTREEN ITZULERA

Bazen behin artzain bat, Altsasuko mendi bateko leze batean bizi zena bere ardi eta arkumeak zaintzen zituen. Artzain hau gizon zahar bat zen eta Ruperto deitzen zen. Oso pozik bizi zen bere lezean eta ez zen asko Altsasura jaisten, baina urtero herrira joaten zen erosketak egitera negua pasatzeko.

Oso pozik zegoen bere artaldearekin, oso indartsuak ziren bere ardiak eta oso urduri zegoen, bere ardi politena haurdun zegoela eta. Berrehun buru zituen eta txakur txiki bat Txuri deitzen zena.

Egun batean, Ruperto Altsasun zegoen erosketak egiten eta bitartean bere ardi politena erditzen hasi zen. Lezearen ondoan ordea, putreak bizi ziren eta ardiaren oihuak entzun zituzten eta janariaren bila joan ziren putreak. Orduan artzaina zerura begiratu zuen eta putre asko ikusi zituen leze inguran, eta pentsatu zuen: “*seguru nire ardia erditzen ari dela*”. Altsasun jende asko zegoen eta artzaina joan zen herriko enparantzara, han jendeari laguntza eskatu zion. Gizon batzuk far egin zuten baina beste batzuk arduratu ziren. Gizon batek esan zuen: “*goazen azkar zure ardiaren bila*”. Denak elkarrekin korrika egin zuten mendira, han aurkitu zuten arkumea hilda eta ardia erdi hilda. Herriko jendeak erabiltzen zituen sareak putrea arrapatzeko, hori egin zuten baina hartzea oso arriskutsua zen. Putre guztiak harrapatuta zeuden eta nafarroako gobernuari eraman zizkieten, eta gobernuari esan zioten zergatik harrapatu zituzten putreak.

Nafarroako gobernuak eraman zituen putreak beste lekutara. Ruperto oso pozik zegoen eta diru laguntza eman zioten. Diruarekin, afari bat prestatu zuen bere lagunak gonbidatzeko. Afaria oso ona zen eta herriko lagunak eskertuta geratu ziren. Rupertok ez zituen inoiz ez arazoak eduki putreekin.

Egileak: Jose Luis Ojer
Patxi Ramirez
Maite Martinez